

Landa-munduaren aukerak eta erronkak klima-aldaketaren aurrean: herrialdeen arteko konparazioa

Simon Anderson dk., Klima Aldaketako Taldearen zuzendaria, simon.anderson@iied.org

International Institute for Environment and Development (IIED), Escozia.

Landa-biztanleriak eta -ekonomiek klima-aldaketaren testuinguruan aurrez aurre dituzten aukerak eta erronkak oso bestelakoak dira herrialde batzuetan eta besteetan. Hitzaldi honetan ezberdintasun horiek aztertu eta, erronkei aurre egiteko eta aukerak aprobetxatzeko eten gabe egin diren saiakerak identifikatuko dira, klima-egokitzapena kontuan hartuta.

Urte hasieran, egokitzapen klimatikoko esparrua abian jarri zuen gobernu eskoziarrak, "Climate Ready Scotland: ¹ Scottish Climate Change Adaptation Programme" izeneko programaren bitartez, 2009ko Klima Aldaketari buruzko Legearen (Escozia) 53. artikulua agindutakoa betez. Hartan, Erresuma Batuan Klima Aldaketaren Arriskuen Ebaluazioan Eskoziarako identifikatutako eraginei ekin zitzaion. Ebaluazio horrek 2008ko Klima Aldaketari buruzko Lege britainiarraren 56. artikulua arabera eman zen argitara, non gobernuak klima-aldaketara egokitzeko dituen helburuak, proposamenak eta helburu horiek betetzeko politikak ezarri baititu, proposamen eta politika horiek ezartzeko epealdiarekin batera. Programa hori landa-ingurunean, azpi-egituran eta gizartean oinarrituta dago eta "klima-aldaketara egokitzeko xedapen" gisa ezagutzen denaren alde egin nahi du.

Etiopian, erresilientzia klimatikoaren eta ekonomia berdearen (CRGE, ingelesezko sigletan) helburu bikoitza bateratzen duen asmo handiko agenda garatu du gobernuak.² CRGE, herrialdearen garapeneredua energia-garapen eraginkorrerako ibilbide modernoetarako jauziaren bidez eraldatzeko aukeratzat jotzen da. CRGEren Egoitza Finantza eta Ekonomia Garapeneko Ministerioan dago gaur egun, eta bertatik bultzaten dira ministerio ezberdinetako programak. Nekazaritza-sektoreak Etiopiaren garapenean duen garrantzia dela-eta, egokia da ministerio hori izatea inbertsio bien formulazioan gehien aurreratzen dena, klimaren ikuspegitik nekazaritza-sektore berde eta erresilienteagoa lortzeko.

Bi herrialde horien kasuek klima-aldaketaren mailaz mailako estrategien garapen eta ezarpenaren alde egiten duten faktoreak ebaluatzeko balioko dute, landa-munduaren aukera eta erronkei arreta berezia eskainiz. Ingurunea, politika eta plan proposak zein lehentasunezko neurriak aztertu eta alderatuko dira. Gainera, aurrerapena eta arrakasta ebaluatzeko modu ezberdinak aztertuko dira.

IPCCaren Bosgarren Bilakaera Txostenak azpimarratu du klima-aldaketaren ondorioak "larri, orokor eta atzeraezin" bihurtzen ari direla azkar batean. Landa-biztanleria eta -ekonomiak aukera guztiez baliatzea eta erronka klimatikoei aurre egitea ahalbidetuko duten neurri kolektibo eraginkorrek erantzun ahal izateko, fite ikasi behar dugu esperientzia berrietatik. Gauzak ondo egiten ari gara? Dagokiona egiten ari gara? Eta, nola jakingo dugu?

¹ Véase <http://www.scotland.gov.uk/Resource/0045/00451392.pdf>

² Véase

http://www.uncsd2012.org/content/documents/287CRGE%20Ethiopia%20Green%20Economy_Brochure.pdf